



Prensa oharra

Elkartasunaren aldeko apustua

**EROSKI-K AURTEN ERE PARTE HARTU DU
URTEROKO ELIKAGAIEN BILKETA HANDIAN**

- Kontsumitzaileek nahi duten kopurua eman dezakete ordainleketan, eta Elikagaien Bankuek janariarekin trukatu dute ondoren
- Bilketa, urtarrilaren 6rako bost milioi otordu lortzeko erronka duena, hil honen 19tik 25era izango da
- Elikagaien Bankuen aldeko azken kanpainan, maiatzeko Kilo Operazioan, EROSKI eta haren bezeroek oinarrizko elikagaien 185.000 kilo eman zituzten dohaintzan
- Hogei urte baino gehiago dira elkarrekin lanean ari direla EROSKI eta Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioa

Elorrio, 2021eko azaroaren 18a.- **EROSKI**k martxan jarri du beste behin elikagaien ohiko Bilketa Handiaren kanpaina, [Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak](#) eta hor biltzen diren 54 bankuek antolatzen dutena, kolektibo zaurgarrienei lagundu nahi dieten kontsumitzaileen dohaintzak jasotzeko. EROSKIren sareko 1.100 saltokik baino gehiagok (supermerkatuak, hipermerkatuak eta kooperatibaren frankiziak) aukera emango diete ostiral honetatik azaroaren 25era arte beren bezeroei ekarpen ekonomiko bat egiteko Elikagaien Bankuen alde.

Aldi honetan, aurreko kanpainetan egin bezala, kontsumitzaileek lagundu ahalko dute ordainleketan eurek nahi duten kopurua emanda. Kanpaina amaitzean, dohaintza horien bidez bildutakoa federazioan dauden elikagaien bankuen eskuetan geldituko da gehien komeni zaizkien eta behar dituzten produktuak erosteko; horrela, ehunka familiaren oinarrizko elikagai premiak estaliko dituzte urte osoan. Elikagaien Bankuko boluntarioek eta EROSKI kanpainaren berri emango diete bezeroei.

"Aurten ere, behartsuenei elkartasuna erakusteko eskatzen diegu gure bezeroei. Guk, berriz, gure babesa emango diogu Elikagaien Bankuek ematen duten laguntza ezin estimatuari, bezeroen dohaintzen guztizkoari ekarpen gehigarria eginda", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun Saileko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

FESBALeko zuzendariak, berriz, Miguel Fernandezek, honela esan du: *"Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioa eta hor biltzen diren 54 Elikagaien Bankuak bereziki eskertuak gaude EROSKIren supermerkatu kateek bat egin dutelako Elikagaien Bilketa Handiaren kanpainarekin. Emandako dohaintzen bitartez, Elikagaien*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Bankuek eskura izango dituzte behar diren elikagaiak unea heltzean kolektiborik zaurgarrienei laguntzen jarraitzeko".

Elikagaien Bankuen aldeko aurreko kanpainan, maiatzeko Kilo Operazioan, EROSKIk eta haren bezeroek oinarrizko janarien 185.000 kilo eman zituzten dohaintzan; milioi erdi otorduren pareko da hori, eta hala, 200 familiaren elikagai beharrak estal daitezke urtebetez.

Era berean, EROSKIk bankuen federazioarentzat 2021ean bost milioi otordu lortzeko erronka du, eta espero du lortzea Bilketa Handiko dohaintzei eta Eguberrietako Elkartasun Zentimoen kanpainari esker.

Hogei urtean baino gehiagoan Elikagaien Bankuekin lanean

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak eta kontsumitzaileek berek proposatuta, behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakustea galdegiten zuten eta. Hala, urte horretan bertan hasi zen Kilo Operazioa, elikagaien bilketa kanpaina, EROSKIko dendetan.

Gero, EROSKIk martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa.

EROSKIk egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)